

# Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak

## (9 - Espartza: ahozko testuak)

KOLDO ARTOLA\*

Oraingo saio honetan, lehenagoko beste batean egin genuenaren antzera –‘(5 - Otsagi: ahozko testuak)’-, Espartzako herrian 1976.az geroztik bildu ditugun material batzuk lerro hauetara ekartzen saiatu gara. Entrega hau ahozko testuei soilik eskaini izanak arestian aipatu saio hartako sarreran idatzi genuenarekin zerikusia du, aldizkari honen sortzaile eta urte askotan zuzentzaile izaniko Jose Mari Satrustegi adiskide ahaztezinak (G. B.) era honetako aholkua eman baitzigan behin –ahozko testuak, berak bakarrak, gainerako datuetatik bereizita argitaratzeko, alegia–, Otsagiko datu haiiek, ugari samarrak izatean, zein eratan argitara genezakeen geure asmoaren berri eman genionean. Beraz, aholku hora baliatu dugu oraingoan ere, orduan bezalaxe jokatuz.

Datu-iturria, kasu batzuetan oparoa, honen aurreko entregan aipaturiko informatzaile berberei zor zaie: Josefa Elizondo –andere honengandik bilduriko grabazio-zati labur samarrak nahi bezain argiak izan ez arren, ez dugu XIX. mendean sortu lagun honen lekukotasuna bazterrean utzi nahi izan–; Dionisia Garate, Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografi Sailak 1983-1990 epean argitara emaniko *Euskalerriko Atlas Etnolinguistiko-rako*, jada, informatzaile bikaina izan genuena; Eulogio eta Rosario Ramirez senar-emazteak eta azken honen anaia Jacinto –Euskaltzaindiak argitaratu Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental* izenburuko lanerako Espartzan egin genuen inkestaren erantzule aparta–; Telesforo Elarre eta honen anaia Nicolas, Bardean eta beste zenbait lekutan artzain ibilia hau; Lucas Senberoiz, ogibidez zurgin izanikoa eta, azkenik, Orontzen sortu arren,

\* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa.

Esker biziak eman nahi dizkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, laguntzaile izan dudan Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziatura.

txikitatik Espartzan bizi izaniko Fernando Rekalde, almadiatzan ibilia. Hona, bada, eta besterik gabe, Espartzan bilduriko testuak:

JOSEFA ELIZONDO, *Mayatzaldea* etxekoa, 1976

### Erribera aldean olio egiten

- *gizonak len, ardiekin eta, nora faten ziren?*

- Àraguára... Àraguára (sic), aragonés, Àraguára, ta (...) Bardénara, Erríbrará!... eta... ólio... ólio itéko dénbran, azeitúna dénbran, azeitúna ta olíoaén... azéitunan bítzra, ta olíoaen... in ártio, kan, béstet tenpráda, béstet etzién (?) gízonik; ìrur gizón! (...). Orá ez, eztela iyór arrépatzen kóitra, trabájatrza, ez.

### Maulera, ezpartinetara joaten zenekoaz

- *orren gazte-denboran erriko emaztekiak faten ziren ezpartin sostera?*

- Bai, pero, gú ez; ni biño zárragoköök.

- *nondik faten ziren?*

- Nondík? gortík, gortík... bortütik (...), lekú koitarík! biarréz... bàña... nólal igartzén tzen... ígartzen zixén... káltzeten... egínik, lána; kéndik, kaláxe, pilàda bát e... kaltzétin, máxko (?) kaltzétin, ta plantilla, plantilla inglésa (...) ¡los guardias! pa'que no les... verían, llevaban así... izí (?) ketarík.

- *arropa artean?*

- Alópa (sic) artéan, báten... péan, atórraen gañéan.

- *kaiet denborak, e?*

- Ni, nínden<sup>1</sup>, kór ez... Eta, pues zómäit, báratzen tzen, noskíro... báratzen tzén... ezpártin'gítén, ezpártin egíten páratzen tzen.

- *kori non, Maulen?*

- Máulen? zómait... barátzen tzen (...) néguan! téporadará, ya (...) lán égin, pues, zómait barátzen zen<sup>2</sup>.

### Aipamen labur batzuk

- *orren denboran, gaztetan, zer egiten zuen kemen?*

- Ordúan... déus e, éz patáka ta éz...

- *azienda?*

- Aziénda aníztetarik, anítz... ardí, étxe bakótxak... bízpur, éz anítz (...).

Negúan, guáurek, bakótxak béren etxétan... manténa, mántena; ta géro, údan, údan pues... ártzai batékin, gúziak, páratuz artzaiári, tokàtzen zéna...

- *eta artzaia, Erriberara, nondik faten ziren?*

- Kóri eztákit; ezpáitugu izán... rebáñorik, pues eztákit.

- *artzaiek egiten zien goilare? 'cucharas'?*

- Ezpélez... kutxára.

- *egiten zien dibujo polit?*

<sup>1</sup> Bitxi da *ninden* hori Zaraitzun –Josefa honek berak gainera ‘nintzan’ eman zuen beste uneren batean–, Izaban eta Uztarrozen duela jada urte asko samar aditu bagenuen ere.

<sup>2</sup> Josefa anderearen azken esaldi honetan bitan ditugun *baratzen (t)zen* horien ordez, ‘baratzen (t)zuen’ aditu uste dugu.

- Bai, sóbra... enkárgatzen zéna bezála... (ez zen, haatik, ia ezertaz oroitzen).
  - *polit dea Iruña?*
  - E... ení, etzíaidaxú<sup>3</sup> batré, bátre gústatzen, Irúña, bátre!
    - *yago gustatzen zaio Espartza?*
  - Espárza ere... èz kainbést... barúllo, etziáidaxu gustátzen barúlloa. Pues... Irúñako... áurrak, xitèn delarík ken-... kéngo familia, gozàtzen txé, koyék...! Bàia (...) elkítzen delarík eskólatik; urrían, urrían faten baitá, ùrrialártio aurten, kemén gozátzen dié.
    - *zer egin du egun edo zer egiten zernaideen egunetan?*
  - Egín desáyunoa; leník txéki<sup>4</sup>, géro, súa égin... eta desáyuna, desàyunoá égin, kafeá eta... éznia; aùntza xáintz... xáintz, égots<sup>5</sup>, ta... yá(e)sta, dèsayuná! géro... géro bazzkári(y)á, beh! géro áldamó(r)za, aldámortzá...-tzen zuénak, aldámorza. Geró, bazzkária... después de... de eso, el que tenía costumbre, pues almorzar, aldámorzu... ¿y qué más?
    - *eta arratsaldean?*
  - Artsáldéan? àrtsaldián pues e... uértratrá, èrregátxoan, da... artsáldia kán; geró abária, egín... ta xán, eta xán ta ló egítra.

### Zenbait ospakizun herritar

- *kemengo festak noiz dira?*

- Agúztua... lemezíko igándean, o larúnbata? ¿cómo es?... en agosto; la fiesta, de antes, más... era San Andrés, en noviembre (...), kála zé. Dénbra... txàrraengáтик, dénbra... tzèla gáxto... [aldatu zien] oáiko... San Pédroala, èta... xáz, kanbiàtu zixén, leméziko igándea; leméziko igándea aguztúkøa.

- *nola zelebratzen da? zer egiten da?*

- Dantzá... dántza! ta xán eta édan.

- *eta zer dantzatzen da? kemengo dantzak?*

- Kebéngó dántza... etzíxen; nóna deátzen da? jótara, bai, bàia... kuadri-llan e... mùsiköák, nóna deátzen dra?... pues mísikoak, orkéstakín... cinco, borz... o séi.

- *eta meza andia egiten da?*

- Méza... sérmon... béti, ta... óngi, bídádo írur ápez...

- *eta erriko ermitak, Santa Engracia eta...*

- Santa Engracia eta San Tirso (...) apézek bérek... géndu txie kuék.

- *apezek zer?*

- Apézek géndu ziéla, bi, bi... [festak].

- *zergatik?*

- Etzít<sup>6</sup>, zeréngatik.

- *eta ermita koiek kan segitzen die oraino ere?*

- Ermítak... undítrik.

- *baia denboraz kaietara faten zen erromerian edo?*

<sup>3</sup> ‘ettinandaxu’ aditzen dela iruditzen zaigu.

<sup>4</sup> ‘Xeki’ da hori, gatz. ‘levantarse’, alegría.

<sup>5</sup> ‘Egos’ da hori, gatz. ‘cocer’, aise antzeman daitekeenez.

<sup>6</sup> ‘ez dakit > eztakit > etzakit > etzait > etzit’ gisako bilakabidea ikusten uste dugu hor.

- Sànta Engrázialá bai, rómería bezála, bàzkariákín, bàzkarieki, ta kán txa<sup>7</sup>, ingrúr'o, ermítá íng(u)run, bàia San Tìrsorá ez, San Tìrsorá... méza, ta géro, egúna... fèsta guardá.

- *eta Aste Sanduan, egiten dea prozesiorik?*

- Àste Sànduan? aurtén, aurtén ez, eztúxu... ápeza, èri baitágo, éri... baràxten ditzú... [eta xiten da] kánpoköa, bézinoa.

- *eguberrietan aurruk elkitzen direa karrikara?*

- Gérren... batekín, txúlen... bultzéko (sic); záre bát (...) eta platillo bát, díruarendako, eta... bèztitrík... lárruz (...) ah! espálderöa, espálderueki, txikín, txíkinak kála; guziék, espálduerekín (sic) ta... maklára; (kantatuz:) "Eguberri, Eguberri, kau dela Eguberria, Gure Jauna sortu eta..." (ez da oroitzentz) ¡No he aprendido! mira, el nietico... ya sabe, sí; y Luis<sup>8</sup> y... mis hijos...

- *'gerren' batekin faten zirela erran du?*

- Txitxién... bultzéko, txúla emàten... biltzále (...), órduan-... dakó ónik; arímaxko rezàtzen txú...

- *eta nolako abaria egiten da?*

- Nài delá(i)k... jàten dú, iten artió (?), béti... dixúgu... abàri xúnto, ken (...) biár mezala (sic).

- *zer gauzak xaten dira?*

- E... axúri, axúri... eta besúgo... ta éztakit, berdúra... pòtajéa ez; kárdo! ta... géro turrón ta (...); razionètakó pues, kóri, besúgo...

- *eta aurruk faten dira etxetara ere kantuz?*

- Étxe...-tra fàten béistra, pues korí, kàntu korí... bádu uskérarik (...) ási ta bukàtu ártio. Van por las casas, a recoger, vestidos así, de pastores, y... ahí se juntan... "Eguberri, Eguberri..." sí, ya saben muy bien, los chicos de la escuela<sup>9</sup>.

DIONISIA GARATE, *Zubialde etxekoa*, 1976<sup>10</sup>

### Espartzako euskal hiztunen nolabaiteko errolda xumea

- *orduan, zonbat uskaldun erran dugu?*

- Zómat elkí dugu kóntoa? abér, kontá zkigun berriz! Arótxekoán bída<sup>11</sup>; Erkàldeköan bát<sup>12</sup>, írur; géro, Maixtérrenián... ah! ta Eulógiok ere badiàki-xú... írur<sup>13</sup>, láur eta bórz; Apéztegián ere bida<sup>14</sup>, e? senàr-emazték xardókitzen

<sup>7</sup> Hots, 'ja, jada', gaztelerazko 'ya', alegia.

<sup>8</sup> Luis Esarte, Josefa Elizondoren seme-alabetarik bat, alegia.

<sup>9</sup> Bai, baina ez eskolakumeeak bakarrik, grabazio hau egin zenetik urte batzutara, 1992an zehazki, Nicolas Elarrek gabon-kanta horixe oso-osorik errezitatu eta are kantatu zigun, artean 90 urtetan zela.

<sup>10</sup> *Mayatzaldea* izeneko fondan izaniko elkarrizketa, etxearen jabe Josefa Elizondo eta honen alaba Julia tartean zirela.

<sup>11</sup> Faustino Ramirez –Eulogioren anaia– eta Mauricia Txango. Datu hau eta ondoren ageriko den zenbait etxetako lagunei buruzkoak Lucas Senberoizen emazte Brígida Beaumontek, Josefa Elizondo zenaren alaba Julia Esartek eta Dionisia Garate zenaren errain Marina Sanzek eman dizkigute, kasu honetan *Arotzekoán* baino gehiago 'Biotzekoán' edo aditzen dela iruditzen bazaigu ere.

<sup>12</sup> Anacleta Galtzabarria, alegia.

<sup>13</sup> Espartzako euskarari buruzko lan honetan informatzaile izaniko Eulogio eta Rosario Jimenez senar-emazteak eta honen anaia Jacinto.

<sup>14</sup> Lan honexetan informatzaile ere izan dugun Telesfora Elarre –geroxeago guk geuk aipatuko genuena– eta haren senarra. Telesforari men eginez gero, baina, senarrak gutxi bide zekien. Dionisia Garatek dena den, *Apeztegian* ez baina, 'Apezpikuau' ahoskatu zuela iruditzen zaigu.

dixe; geró Albína<sup>15</sup>... zázpi, zórtzi, bedrátzi... e? lo menos bedrátzi erran txugú, ya, bedrátzi... Géro, nór dugu? kándik únat?... gú biok! ta géro Zerrájeroan Felisá<sup>16</sup>... la María Francisca<sup>17</sup>, eta géro... la Marcelina<sup>18</sup> también (...) bueno, esa no contemos porque... no es segura. Así que zómat erran dugu?

- *eta ongiendakien?*

- Guziók gará idéntiko, eztugu iórk eré xardokitzén óngi, guzíek xardòkitzen dú(u) áire bati; guk? gú'biék bai<sup>19</sup>, xuntatzen grelarík, “ots! egín xua ló?”, goizián, xíten gríntzalarík (sic): “egun ón, egín xua ló?”, “atsàldë ón”, ere bái... ta géro, gúre konbersàzioán pues... sé(g)un zer... zér bear ginuen xardóki.

- *berze iorekin ez?*

- Beh! pues béstete koiékín ya... báitaudé...

- *baia Prudenzio etxekoarekin bai...*

- Pues bái, xuntatzen grelarík kemen, etsé kontan, e? etsé kontan.

- *eta Arozarenakoekin?*

- E... pues kòrrekín, fáten grelarík elizalá, erráten du: “holá, gabón! fáten xá mèzalá?”, txuntatzen gintzalarík, fáten gintzalarík mezála... yá deágokorík bátre...

- *bear duzie xardoki geiago...*

- Eh! báia... tal como... nexkáto<sup>20</sup> korrékin fáten gintzalarík elizalá, pues ez gínuen xardokitzén báizik ère elizála fáten gintzalarík, eta elkítzen gintzalarík eré: “bueno, biarr ártio!” –biarr árte, eztia? biarr árte<sup>21</sup>...– ta fuera! yá korí... konbèrsaziorík bátrere; kóri báita neskáto, ta gú... báigra abuélá! bësteik, bérze gísan ez, eztugu guk... iyórekin xardókitzen; éz gra diáoko uskaldunik kemen, ta gú... iltzen grelarík, bukátsen dra uskaldunak... érri kontan (...); kónek eré<sup>22</sup> badáki zérbait, amàrekíñ e zomàit elé xardókitzen du, baiá... kén bukátsen da, bukátsen dá uskàrará, de raso.

- *eta Telesfora Elarre?*

- Korrék badáki óngi; ni beñó... làur urte'ré zarrágo dá, mazté kori, ta senarrá ere bái; aiék... bízi<sup>23</sup> baitú senarrá, ník ere bízi izan banó<sup>24</sup> senarrá pues ník senárrarekin xardókitzen nuén áaanitz úskarará; ta xúk<sup>25</sup> iguál; klaró, tio Bónifáciok eré baziákixún uskàrará anítz ongi, emázte konén senárra<sup>26</sup> (...), guk ánitz, étsen, xardókitzen ginixún, báia géro míra, adiós! bedrátzi

<sup>15</sup> Albina Arozarena, *Balisa* etxekoa.

<sup>16</sup> Felisa Mikeleiz, hain zuzen.

<sup>17</sup> Maria Francisca Etxeberria, *Prudenzio* etxekoa.

<sup>18</sup> Marcelina Tanco, *Argina* etxekoa, ezkaroztarra omen zena.

<sup>19</sup> Hots, ‘Josefa Elizondoko eta biok’, alegia.

<sup>20</sup> Azkue: **Neskato, nexkato:** 2º (R-bid), soltera, *célibataire*. Erronkarierazko hitzak izateaz gainera zaraitzuerazkoak ere badira hauek, geroxeago *neskato* hitza bera azalduko denez.

<sup>21</sup> Guk hobeki ulertzeko esan bide zuen horrela, antza, aldaera horren jakitun zela erakutsiz.

<sup>22</sup> Josefa Elizondoren alaba Julia, alegia.

<sup>23</sup> *báizi* aditzen ote den gaude.

<sup>24</sup> Bonaparteren *Études...* izeneko lanean, *Suppositif présent* kasurako, ‘banu, bazinu, bayu, balu...’ moduko saila baldin badugu ere –Telesfora Elarrek hari honetatik *xardoki bálu* emango du geroxeago–, *Potentiel Conditionnel*-erako ‘noke, zinoke, oke, loke...’ bezalako erak agertzen direnez, esaldi honetan Dionisiak erabilitako *bano* hori ulertzeko modukoa dela iruditzen zaigu.

<sup>25</sup> Josefa Elizondori esan zion hori Dionisiak.

<sup>26</sup> Bonifacio Esarte, Josefa Elizondoren senar zena, hain zuzen.

urte ílik, ené senárra, kònke geóztik onát... errán tana, emázte konekin; yaguén (t)xardòki tána eta géro... Pédro Máriren ámarekin<sup>27</sup> (...), tal como... errán dugúna, Apézteiko Telesfórk eta kòrrekín? pues iguál, mézala fáten grelárík zérbait itzen dugú, geàkorík bátre... espéra, ez grá xuntatzén! úrak dáude ará kartan<sup>28</sup> ta ní... kében, eskìna kóntan! beh... éztut sufritzén.

- *xunta zitie, arren...*

- Beár ginuen bái xuntatu bàya éz gra txuntatzén... úra beré étséan ta ní norían ta fuera! éta... yagué(n) xinírte (?) nizála emázte konéngana, kóna... kén xardòkitzen dugu bíoik, ta fuera! eztéá tia Joséfa?

- *'tía' erraten zaie kemen ere adin andiko emazter, Errongarin bezala?*

- Ez... tía ta tío izan tutála, bàia éne kostúnbrëa izàn dut korí, pues: “tío Bonifázio, zér egiten xú?”... “tía Josefá?”... emáten dàzta ení... amaírur edo amaláur urte emázte konék, zárragöa<sup>29</sup>.

- *kortaz, errian badira oraino uskaldun batzuk...*

- Bái-bai, bàia guttí-guttí!... kontátko dauré orái(n), uskaldunák...!

- *eta gaztena, nor da?*

- (...) pueda ser, la Rosarito<sup>30</sup>, más joven que yo.

- *eta Rufina Galtxabarria<sup>31</sup> berrogei urte solo...*

- (JE-ren alaba Julia:) Esa? como yo ¿verdad? ¿sabrá?

- JE: ¿la Rufina? ya sabe (...).

- (Julia:) ¿la Rufina? no sabe, madre; como yo, palabritas sueltas...

- (Juliari:) ‘madre’ erraten dakozu amari? kemen ez dea erraten ‘ama’?

- Áma?... ah! le ha dicho ‘madre’, pero bah!... áma también ya le dice, sí<sup>32</sup>.

- (Julia:) Sí, “amá!”, cuando le llamo, “amá!”. Cuando estoy hablando, pues “la madre” esto y “la madre” lo otro, cuando habla[mos] el castellano, pero cuando, bueno, y cuando no, también, “áma”. “Amá!”, cuando la llamo, siempre “amá!”.

- *eta Escolástica Mosok<sup>33</sup>, ongi dakia?*

- Umm... ez, eztút erranen, emázte korrek badàkienéz euskárara. Y mira! y quién habrá dicho a éste el nombre de la Escolástica?

- *atzo egon nintzan aren tabernan eta senarrak...*

- Errán zuen, kóri?

- *bai, emazteak ongi dakiela...*

- Eeh... pues, ník xa éztakit badákienez emázte korrék, enékin xá eztú sékula xardóki úskarara.

- *pues duela bi edo irur ure ere kan egon nintzan; ura zegon eta...*

- Eta txardókitzen zuená uskarára? eh, gúk xa éz, sékula!

- (Julia berriz ere:) La Javiera y esas, más saben, la Javiera y la Felicítas y...

- Y la... y la Paquita, esas tres hermanas también saben<sup>34</sup>.

- (Dionisiari:) *ori nongoa da?*

<sup>27</sup> Pedro Mari Juankoren ama lehen aipatu *Prudenzio* etxeko Maria Francisca Etxeberria zen.

<sup>28</sup> Aitor Aranaren *Zaraitzuko biztegia*-n “ara kan” dakusagu, Bonaparte printzipearren materialetatik jasoa. Ideia horretatik aski hurbil ote gauden pentsa liteke, agian.

<sup>29</sup> Josefak eta Dionisiak 84 eta 72 urte zituzten, hurrenez hurren, hau bildu genuen 1976. urtean.

<sup>30</sup> Rosario Ramirez, *Maixterra* etxekoa, geroago ezagutuko genuena.

<sup>31</sup> *Legaz* etxekoa hau.

<sup>32</sup> Hots, gure egunotan, Zaraitzuko zenbait herritan eta erdara baizik egiten ez duen jendearen artean, oso zabaldurik dago ‘el áita’ eta ‘el áma’ moduko erak erabiltzea.

<sup>33</sup> Pequeño etxekoa hau, *Legaz*-enean sortua.

<sup>34</sup> Tanco da *Arboroki* etxeko hiru ahizpa hauen abizena.

- Ni? kéngo, kéngo... kéngo etsálaba; Esparzáko etsálaba niz ni. Ene áma Otsagiko; áita etséko.

- *eta kemen, ori gazte zelarik, uskara anitz xardokitzen zen?*

- Uuuuh... béti uskáraz! áitarekin t'ämarekín ni beéti uskarazl. béti; uská-rará zakién ánitz óngi ène aiták eta amák.

- *eta erriko gizonek ere bai, orduan?*

- Pues... bai, xardókitzen zien ordúan, gizónek, bái-bai-bai... bázegon órduan gízon uskaldún... ètse guziétan! géro bukátu da, órai, úskarara,orrá! eta séméak eta alába bái etsetán eta, éz eràkustëagátik eta éz ikàstëagátik eztie ikási; ará! kór bukatu da úskarara etsétan, ez xardókitzeagátik.

- *eta nork galdu zuen kemen lenago, gizonek ala emaztek?*

- Je! azkenéan guzí(e)k, entre gizonék eta emáztek, ta guziék, guziék gáldu die uskárara; ez xardòkitzéarekin... guziá búkatzen da! iguál nóla guk, ezpá-dugu xardókitzen bíek pues, pues... bâtrereré! etséan eztáukegu xardóki úskarara, baizik ere... xuntátzen grèlarik bíok (...). Pues orrá, gûre uskára... zér uskára da gú... gáuza gúzia... asèntatzen txú, zeren gúk... kónbersaziorik? eztúgu izánen eta (...). Beriála fáten gitxú... èrdaralá! uskárara ez xardò-kitzéarekín? bereála erdárala. Eta néuk (bat-batean eztul egiten duela-eta), éne... eztulá? béti igual; bíar bar txút fan bérribiz kontsulttalá abér tzé erráten dadán dotore kórrek; ermàten tút bi ilábete, e? eztúlekin, gábaz eta egúnaz, gába ta egúna, gába t'egúna (...). Ronkéra píxka bat.

- *ronkera mittika bat?*<sup>35</sup>.

- 'Mittika bát' etxú erraten, e? rónkera pixka bat. Gûre uskara, káu xu... uskára... ùskará pôbre.

- *ez, ez, anitz aberats...*

- Eta gúk daukixúgu uskára káu... pôbretako, zeren gûre uskarará izàn delá... obenénian San Sébastianérik txíten txú (...) fonda kontr'éta: "holaa! zúk bádakizú úskarára? artsalde ón! egun ón!" (h)ánitz ìtzen dáde! ta ník kontéstatzen dábet, bâya erráten dabet: "bâya... ník eztóket pronúntzia zi(ek)... prònunziátzen ziéna bezálal!", "bâya konprénditzéko bâda áskil!" bâya éz (...). Ník San Sébastianèkoekín bai, San Sébastianerekín pues, bai: "holá! zúk bádakizú uskára, e?" - "bai"... izaúten niné, xardóki kében erdáru (sic), emáten dút dénge bat. Faten níz Iruñará ta Irúñan erráten dadáe, erráten dadayé ensegída: "Ah! zúk bádakizú uskarará?", erámaten dút kor, dénge bat, pues bai, badakít, kâla dá, a(u)nque éz anítz, baliàtzekó, nòre... zereán bai, bádakit.

- *ez, ez, anitz ongi egiten du eta lasterka gañera.*

- Ya ves, ník uskarará... hablo corriente.

### Zaraitzuar orrazkeraz, jazkeraz eta hizkeraz, eta Otsagiko ikastolaz zerbait

- Ta ikúsi níxua, nóla... nóla fáten nízan? pròpiá salazénka níxu, e? trén-zak, e? etxínaztán ikúsi... eziá? ez, e?

- *mantillarekin eta...*

<sup>35</sup> 'pixka' hitzaren sinonimotzat aditurik geunden *mittika* hori burura etorri eta bota egin genuen egokia izango zelakoan, baina, kasu honetarako bederen, Dionisia andereari ez zitzaison egokia iruditu.

- Mantillaréki eta... fálida lúze karekí... pues ní kalá faten níz, elízala; béstra ez, bàya... mézalá... kémen, e? kémen.

- *eta Madrilera fatean...*<sup>36</sup>.

- Madrilen bilöá... tía Joséfaren gísa, róska, ta ní ará faten nintzalarík ere bái (...).

- *mototxa edo? ‘moño’arendako nola erraten da kemen?*

- Róskarà, kémen egíten xút eta yá(e)sta; bàya kemén orrá: salazénka, e? salazénka...! áek kála erráten dadaé.

- *zaraitzuar?*

- Zaítzuar, zaítzuar... pues kála! bueno, pues yá... zér bar dígu xardoki, tía Joséfa? eztágigú déus'e, ez kánturik eta éz (...) bátre! éz... oróitzen!

- *Errongarin aditu ditut kantu txikin batzuk...*

- Kán'e xárrek txardóki zaén (?)... uskárara gú'miño obekí?

- *ez, obeki ez baia, kan ere zonbait xarrek zerbait badaki...*

- Aníz gáuza bagínakizun bàya, bàya órai... guziák atzáitxu; beh! bátre-bátre! ni eníz orítzen déustaz ere!

- *kemen nola erraten da ‘olvidar’?*

- Átze, átzerik; àtzerik gáuza guziák. Dénbraz báginazkín gáuzak bàya uuh!... ez, éz kontínuatzérekín? pues gáuzak átzetzen dra, átzetzen dra gáuzak. Eta órai, xúntatzen gralarík, bertzè gisán ez (...), éz-ez; ník emázte kóneki, yagöéna...

- JE: gu íltzen grá... grelarík...

- Adiós! gurékin bukátsen xu gúzia.

- *ikusiren, ikusiren!*

- Zúri idùri zaixú beár diéla... segítu uskárara; nóla bar du segítu? buh! ník batút etsén... láur nieto, eztéa? niéto bát eta írur nieta; bueno, niéta... zarrenák ya amabórz urte; kóri daukigú mónjetan, Tafállan, kan, dióxu mónjetan; bueno, mutíko káu, amaírur urte, oáñik eztú beté amaláur; ník zómait éle xardòkitzen dakót eta... bárre egíten dadá, “úskaráz... bear dük kontestátu, e?” - eta “bai!”, bái eta éz eta kóri bái.

Bueno; géro batút, békete nieta bát badút amárr urtéko; eta... kórrek: “a mí no me... no me hable nada, e? en vasco, e? abuelita, no me hable”. Txikína? zàzpi úrte, korrék, korré'bai, korrék ikasién zuen, bàya eztákoe iràkutsi nái!... jeh! ník orái eràkutsi dabét... bat, bída, íru (sic), láur, borz, séi, zázpi, zórtzi, bedrátzi, ámar; améka, amábi, amaírur, amaláur, amabórz, amaséi, amazázpi, emezortzi, emerétti, ógei; bueno, ikási dixú(u) ógei, pues... orái ogeitámar ;hala, venga! –Mariníca dèitzen dá– ;hala Marinica! ógeita bát, ogéita bída, ogéita írur, ogéita láur, ogéita bórz, ogéita séi, ogéita zázpi, ogéita zórtzi, ogéita bed(e)rátzi, ogéit'amar. Kórrek ikási dú, enékin, bàya orái, e? fan déneko aspáldixko kóntan; korrék bai, korrék ikásien zixún...

Otságain badíxu eskòla bát baya... (t)xu... besté grupo baténdako; gùre koléjioan dixú bàya... déus ere uskárarik; báia ník bái étsen, ta... sekretáriok egòrri zixún papel ánnndi bat, etséra, eràkustekó... uskál... ùskal kúra guziák, ta ní asi nintzàxun bái... Ègun zórtzi [festa bat egin zelarik], nik, nixkáto (sic) arí errán nakon: “bueno, gálditen badú zómat ùrte txún, errán

<sup>36</sup> Galdera hori egin aurretik hura Madrilen egon zela esanik baitzegoen.

dazoxú zázpi, eta astén bálimadrá erráten: kónta zkitxú... bat, bida, írur, láur..." (...) baitzén ègun zortzi fiéstara, ta itén zun paréja konékin, e?

- *bai? Otsagiko ikastolala faten da?*

- Ez, bàya... egín zuén paréja... éne niéta korrék ta kóneki; beztítrik! a lo... antíguan! faldáxko bátzurekín, txakétilla batzúr ta pañélo bat... kalaxét xurirík, kémen lótrik, lótrik zinturán, demàntaléxko batekí, ta géro bérste pañelo bát buruán, te yá!... Egún... elkí biar tetxú (sic) fotógrafia; beztitu txú... guziák, eún kartáko bezála, ta egún ègin bear titxú... fotógrafiak (...).

- *eta arestian erran duen Otsagiko ikastolan...*

- Láur urteko aurrék badákie uskàrará... ongí.

- *bai, e?*

- Bai, bai, bai... Sí pero, sólo Otságikoendáko...

- *eta erri kontako aurrap ez daizkea fan kara?*

- Etxakín, körí... ezaut-, eztú erranen... Pues beré aldérditik, korrá... azkénan otsagiár, eta fuera! Otságikoak otsagiár: klaró! bertzérik déus e.

- *Oroitazten diogu bi hilabete lehenago harekin mintzatu izana*

- Sártu ta bereála, idúritu záida: "ník gizón konekín, xárdoki bárimadút? errán, errán... zínadayén: "egun ón, zu, bádakizu uskarára?" - "bai, pixka bát bádakit, kontèstatzéko diná"; errán dut nore baitan: "ník gizon káu numáit ikusi dut", bayá, orrá, orái... órai orítu niz.

- *Aurreko egun batez Otsagiko Udaleko idazkaria ezagutu genuela esaten diogu*

- Orrék<sup>37</sup> badú intérés anítz... xardóki dadién uskárara, bayá, jéndeak éztu, eztú xardókitzen.

- *Zernahi gisaz ez da agertzen otsagiarren erabakiarekin ados*

- Otságikök Otsa(g)íko, sólo, kán eztá iór ere amétitzen, sólo Otságikök (...).

- JE: Ník usté, bàia... (zalantzakor).

- Zér nai xú ote errán? bétire maéstra bát, maéstra bat dioxú, uskárarén erákusten, báya<sup>38</sup>, Otságikoendakó sólo; ta ségitien diá oté... káu, ánitz? éz nòskiro; berriz eman díxe... móza batzúr...

- *aur-multzuaren anditzeko?*

- Gáuza koyék ikusi díxügu, eztéá?

### Zenbait baselizatara egin bisitaldien berri laburrak

- Sànta Engrázia undítrik eta... San Tírso undítin (sic) xu fíte, eta adiós! kórr etxú baratién ere... kóri egía.

Ama Bérjina Idòiaköán ní egon níz; egin tút írur biaje, Ama Bérjina kártra, bainuén burúmin ánitz! Neskàtozútuan? bí aldz eta... géro kasátu ta béin, irúr biaje; èman néen... méza batendáko eta emán nakon díru... exértzeko bí belá bi áldetarik, azkén biájéan; bàya badút góna fáteko, eta áurten baitítugu patákak kan Beláguan, fán bar xút ègun bátez, a la... Ama Bérjina Idòiakoala, ekústra. Oh! ní egón nintzànekotik...

- *nai baldin baduzie eramanen zitiet biar...*

<sup>37</sup> Otsagiko Udaleko orduko idazkaria, alegia.

<sup>38</sup> 'bayo' aditzen ote den gaude.

- Ai! nágo... jíbatrik fáteko bíar! eskér mil'ánitz, fanen níz, bërtze egun bátez... eskér mil'anitz, agradézitzen dút ánitz, baya bëtitut áurten okasio fatéko sémiarékin, pues fanen níz. Egún ere egon dá Irúñako semiá ta errán dadá: "áma! bériz xiéten grelarík, fanén gitxú... patáken ikústra", ta "bueno, bueno, yá égun beño obékixeagótto egòten nizán"; "kuída naiéla ta kúida naiéla", pues, "pues kúidatzen nük eta eztákiat zér (...)".

Bádiakixut bíar, nún dagon Isába, ah! ta Idóia? orrá, eztátxula errán, Idóia, nón dagón; ni eón nixu, bai... euztén banié're góiti kartán, fanén níz bai, karréterara gaindí, ta géro artièn dut... eskùyalá, ta fanen níz... xúxenera, orítzen niz bíar ongi, Amá Berjína Idóiaköa. Ník írurbiaje ègin dút, irúribiaje, ta... ta izán nuen buen alivio.

En Lúrdes'e ní ere egón nintzán, bein... Arburúan ere bíar, egón niz... géro, Muskíldan ere bíar... aaah! ník korritu dút ánitz! Argilóa, ere bíar, kemen baitáukigu, Sartzékoan, ere bíar... gústatzen (t)zaidan, bai, dénbra kaitán fátëa... érmitétra jya lo creo! eta... zángoen gáñan, éz kótixerékin, ez, bàizik ère zángoen gáñan... eta témplatu bär, bàia orái, bátrere ez; orái eztút balío déus ere!

### Edozein egunetako eginkizunak

- zer egin du egun?

- Zér egín tan? góizión fan nixú mezála; mezátik sauntsí, eta zér egin dut? etsén eztút egín eún déux ere, etsekuándrea bíaitut... ègitekó! enuén zér egi-eko, lagún-lanik étsen; bázkaldu dut óngi, eta géro fan níz siéstala; igàre dút... óron bat, siéstan; geró xeikí niz ta xín baitrá sèmiák, hala! kor... bénga! párti txorízo ta gázta ta ógi, ta éman ázkaltzra! yá(e)sta, éne eúngo láboriá, eztút egin diagórik déus ere.

### Abarkak lotzeko kalamu-sokak eta abarkagintza oro har (1979)<sup>39</sup>

- kemen, 'cáñamo, nola erraten da?

- Ez, kemén eztágo.

- libro kortan exertzen du 'kalamu'.

- Kálamua; uskáraz kalámua déitzen da.

- bai? kala aditu du?

- Báí-báí! dénbraz... erósten gínuen, abárken sostéko; egíten gínuén kàbo batzúr eta... sostén gintzán abárkak, kártaz.

- baia kemen ez zen sortzen, erozi bear zen kanpo...

- Bai, erósten gínuén káñamoà, kàñamöá erósten gínuen, tiéndan...

- eta nola erraten zen uskaraz?

- Uskáraz, kañámöa, béti kañámoa!

- kalamu, ez?

- Kañámöa déitzen gínuen gúk, kañámöa... "eráugi zazié matáxa bát káñamo, tiéndatik", tiéndan saltzén zen, trénzaxko batzur; ta géro trénza kártarík, desègiten gínuén, según zér kábo... fálta egíten zuén, pues... gintzén<sup>40</sup> gínuén... trenzátik, eta egíten gínuén... kábo batzur, sostéko; yá-ya, zétra ellégatu niz! abárka ere bíar, banákien egíten abárka, bei-lárruz!... bei-lárruz

<sup>39</sup> Dionisiari bildu testu hau eta honen ondorengo guztiak haren *Zubialde* etxearen bildu ziren.

<sup>40</sup> 'gentzen' da hori, 'kentzen' alegia.

egiten nuén ník abárkak eta... muttúrrak kálaxe txuts, (zuzenduz:) txut, muttúrrak txút, eta géro bí aldetarík sos.

- *konta, konta beza nola egiten zuen...*
- Jeh! kónta zatála? erráten dut: ebákitzen ginuén... kálaxe bí... bí txerrú, eta géro sósten ginuén... mútturrak, kalá, altzinetík, kála (...).

- Pues txérru dá... káñamuári, géntzen ginuén, txérru batzur, eziá? ta txérru kaítaz... –txerrù kurák egiten ginuén lúxe-lúxëa– eta geró kártaz... sósten ginuén kála... abárkara; káu da... (egunkari-orri bat eskuekin moldatuz, abarka bat bailitzan) fórmá kontan... e?... eta géro, kála, bí aldetarík, sósten ginuén... xílo batzúr egiten gindién (!), ken bát, kén bertzé bat, kén bertze bát, ta géro kéndik faten gintzán sósiz, ta xúntatzen zén géro bíak kála; kau zén abárkara.

- *baia ez du erran zer den ‘txerru’...*
- Ez! kañámöa... káñamú-txérru, bertzéik ere déus ez!
- *:los cabos, o parte del cáñamo, o...?*
- Pues... káñamöá, dèitzen ginuén káñamo ta géro... káñamöáz egiten ginuén... kábo koyek, dèitzen ginuén kábo.
- *txerru da kaboa?*
- Bai-bái, txérru dá káböa, kábo.

### San Tirso izeneko ermitara bederatzurrena eta erromeria

- *kor, goiti kortan dagon ermitak, zer du izen?*
- San Tírso.
- *eta denboraz zer? faten zen kara romerian edo?...*
- Ah, bái-bái, faten gintzan dénbran; nobéna bat egiten gínuen... kásik ètse guziétarik, egunóro mezála kàra faten... ta oái déus ere, ègu<sup>41</sup> guzía bukátrik! Orái... jénde gázte kebek... bat ézta faten ere elízalá!... éz-ez... gurékin bukàtzen dá (sic) guziák; ùrte gútiz... ïzan dá kánbio anitz. Guríak faten drá, baitrá sakristán, el cargo de sacristán llevan los nuestros, y las chicas, quieras que no tienan que ir, ya... tienen que acudir; pero... –ah! úskaraz–, báia bérze gísan? etzréñ fánen bátrere! ez-éz, etzréñ fánen, báia orái... kárgo kori báitie, asté batéz faten dá... bát eta bérze astián faten dá bérzëa; bí... bíak baitítugu étsen, bi nexkáto, pues kála fatén dra, berzála? etzén faén bát ere. Kanbiátu dá anitz.
- *eta nobenara nola egiten zen?*
- Bah! pues nòla egiten zén? pues fa(r)tén gintzán... ègunóro! bedràtzi egúnez faten gintzán mezála, kára...
- *eta zer berze egiten zen?*
- Ah, déus berzerík.
- *nobenara solo...*
- Pues, nóbénará, dèitzen ginuén korí, nóbénara.
- *erromeria edo kalako zerbait ez?*
- Ère bái! urtian béin, iten zén romèriará, bai.

<sup>41</sup> Kanpoko eragina somatzen uste dugu hor; izan ere *egu* hori –gazt. ‘hoy’– Abaurregaina, Auritz eta Artzibarko Hiriberri moduko herriean bildu zen *EAEI-I* delakoan (192). Dionisia Garatek, hale-re, behin baino gehiagotan erabili zuen, Zaraitzun ohikoa ez den arren.

- *leitu dut bazela kantu bat aski famatu...*
- Ba, jya lo creo!
- *oritzen dea nola ziren?*
- Ez, guziák átzen dra.
- ... ‘tellaz gorri-gorria’ edo...<sup>42</sup>.
- Ez.
- *eta egia dea frantsesak ere xiten zirela? debozio andia ziela eta...*
- Uh! ya lo creo... urtúxirik xíten zrént kóna... Frantziárik asíta, e? bar zuén márta (?) merítu, e? urtúxirik!
- *eta zendako xiten zen jendea? zerbaiten sendatzeko galdditen zitzaison edo...?*
- Ah, kláro... dolóre, dolóre... “San Tírso glorioso, mártir de los dolores” deitzén zen.
- *badira letra batzuk, “San Tirso... tellaz gorri-gorria”, orai ez niz ongi oritzen...*
- Pues ní ere eníz orítzen, eníz orítzen ní.

### Zerri hiltzea edo matatxerria (1981)

- *kontatien loke matatxerria nola egiten zen?*
- Matatxérria nòla egítén zen? etsé kontan izán da bái matatxèrri májorik; orái... orái ez, òrai eztúgu egítén étsen matatxérri bàizik ère kánpo, bërtze étse batíán. Bàia kémen, matatxérri, ya lo creo, egín baidugu májorik! sólo orái ez, orái kánpo egítén dié màttxerría...
- *konta beza, nola artzen den txerria eta...*
- Pues nòla egítén zen? matatxérri! ta zér du kontatzeko matatxérriak?
- *bai, nola iltzen zien, besoetarik ar eta...*
- Besoák?... besoak drá altzína, eta àzpiák... gíblian; ta geró pues... píkátu, eta...
- *baia egin, non egiten zen?*
- Étsen! guziá.
- *eta nola, zerbaiten gañan esertzen zien?*
- Ah! ba... ápal, exérzten zén áska bat lùze-luzéa, eta aská kartán... txe-rría sár, eta geró, bécko bat úr... irakítzen, eráunts, pelátzeko.
- *baia kori il eta gero...*
- Ílta... ílda, bái-bai-bai...
- *baia len, len; besoetarik ar eta...*
- Bai, sárr áskan...
- *eta orduan, zer?*
- Eta urá eráunts, këmendík... irakítzen, e? eta géro, etxáno<sup>43</sup> batéz égotz, txe-rríala<sup>44</sup>, alík-eta... bíloak fáten àsi ártio.
- *bai, kori egiten zen txerria il ondorean, baia txerria nola iltzen zien?*

<sup>42</sup> Hori esatean Azkuek bilduriko *Espartako erria* izenburuko kantu bat izan genuen gogoan, honen hasieraz –“Espartako erria, tellaz gorri-gorria...” (*Cancionero popular vasco, II*, 751 or.)– ongi oroitutu ez baginen ere.

<sup>43</sup> “eltxano” ustez ezagunagoaren aldaera dugu hor, gure informatzaileak behin berriro errepikatu zuena gainera.

<sup>44</sup> ‘Nori’rekiko atzizkia behar luke horrek; ez ‘nora’rekikoa.

- Nòla iltzén zen? gántxo batéz sujetá búrua, bai, eta géro láuren artián làur paták edukí... láur gizónek; eta iltzén zuenák, gántxo batéz sujetá... ázpiala, gamintarén sártzeko.

- *nondik sartzen zakoen?*

- Ah, pues... bi bésoen ártetik; bi bés- (zuzenduz:) besó bat apál, ta bérzean... góiti, kála, exértzen zre(n), eta ílzalía (e)óten báitzen kémen, pues kortík... bí bésoen artián, sàrtzen zuén gámintara; kála egiten zén.

- *txerriak, orduan, zer egiten zuen?*

- Ah, pues... zer égin bár zuen? firme estíra!

- *oyu edo, irago edo...*<sup>45</sup>

- Oooh! nòla deàtzen zén korí? ézta memóriala xínen... uh! pues eztút, eztút pentsázen.

- *irago, eiagora edo...*

- Kaláko zerbait dá.

- *eta il ondorean...*

- Eskálida.

- ... *irakiten zegon ur kura, gañala egotz?*

- Kartáz, kártaz ongí-ongiá... txerría bústi, eta géro, hala! gamintez firme! bilúa gén; eta géro, exértzen zén tábla batzur gáñan, askáren gáñan, ta geró txerría elkí kára, tablaèn gañalá, eta geró kán... garbí-garbía exér txerriá, géro... gèntzekó púzkak; géro esèrtzen zén láur puzkatán txerriá...

- *eta gero txorizoak eta, zer berze egiten zen?*

- Txorizo ta... biríki, eta odólki... odoláz odólkiak...

- *eta lokainak, txistorrak eta...*

- Bai, guziétarik.

- *eta egiten zena festarik etsetan?*

- Bai, bai, prestázen zen... ¡ya lo creo! exértzen zén... bazkária ónik, ta ezpázen bazkária prestatzén, abária!

- *eta apezari zerbait ematen zitzaison?*

- Goráintziak...

- *gure artean batzuek ematen dakoe zerbait, erraten baita 'presente'...*

- 'Presente', bai, bai, bai, eta... vamos, en castellano 'presente' y en bascuénz se díze goráintziak.

- *ah! ematen zitzaison...*

- Bai, bai, bai... emáten, emáten, emáten... uskaráz 'goráintziak'.

### Gorputzaren zenbait atalen izenak (1982)<sup>46</sup>

*Norbaitek galdetu omen zion...*

- ... nòla deitzen zén... kórputza; bùrutík... zánköak ártio; kóri lén-lemeziko... géro... géro zér gàldin zadayén? ya... méndiko àrboléák nolá däitzén zen (sic), zük bezála, nòla deitzén zren (...). Koék... sólo... nòla dèitzen zén búrua, ta boróndia eta... bégia, sudúrra, ágo, agua, órtzak, míña, tzintzúrria, bulárra, éskuak, éria, axekálak... Géro... bésöa, mèsatxúrrua (sic), soñégia, espaldára... kuék! kuék gàldin zaztatxié ení, kuek guziók; bëlauntxúrröak...

- *eta 'kixkolde' ez du erran...*

<sup>45</sup> "kurrinka" –gazt. 'gruñir' – esan beharko genukeen, agian.

<sup>46</sup> Testu hau eta hurrengoa Jose Antonio Azpiroz (G. B.) eta Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegi" adiskideekin batera bildu genuen.

- Ah! bueno, ta oáñik fálta da, kòrtik geinberá, klaró, eta... bë(d)an-  
txúrröa, gèro pàntorrillára, kànillára, zángoa, axixkálak, eta yá(e)sta; kórik  
erran nazkén.

- *berze egun batez, ‘columna’rendako, eman zuen ‘arrosario-bizkarra’...*

- Kóri deitzen dá arrosárioa. Eta yá(e)sta, fán zren kóntent eta ní ére barà-  
tu nintzán kóntent; eta errán zadaén... txínen zrelá bérze egun bátez.

### Euskarazko otoitzak ahantzirik (1982)

- *uskarazko orazioak ikasi zituen?*

- Bátre, eníz óritzen, útzi tut átzetzra; uskàraran éz... xárdokitzéarekín  
pues atzètzen dá ánitz elé! ník eztút xardokitzén i(y)órekin; lén xardókitzen  
nuen, ken, abuéla, fóndan, fónda arrekín, eztéa?

- *Mayatzaldeko ‘tia’ Josefarekin...*

- Bai, baia órai ezpàgira xuntatzén! ní ez fáten kára ta úra ezin xín koná,  
pues bártere. Eta órai... Telésfora korrekín? egìnen dú úrtia ez tala xardóki,  
míra, ta kemen... totál baigáude kasí xúnto, eta... urá ez xíten ta ní ez  
fáten...

- *baia erri kontan berze batzuk ere izanen dira...*

- Ah, badáude, bádaude bái bízpur baiá, ez grà xuntatzén, ez xúntatzéa-  
rekín eztúgu txárdokitzén; xardókitzekó beár da xúntatu; úrak éztra xíten  
kóna ta ní eníz fáten iyöra'ré...

- *eta elizan edo, ez zadia xuntatzen?*

- Bah! elízan, eníz fatén! egín du úrte bat enizála egön elizán, e? izán  
báliz... kála, kéndik kála, ála kartraáño... sárian (?), órduan bai, bàya aldápa  
káu...! ta geró, eskalèra anníz badú elizála yoatéko onek, ta kórrek apúratzén.  
Kéngo eskaléra jústo-jústoa (...).

- *kortaz karrikan bai, ebiltzen da zerbait...*

- Bai, bai, karríkan egón nixu.

- *neguan, aldiz, obe etxe barnean baratza...*

- Orduán, geldí-geldíak keben.

- *erran daukie kemen elur anitz egiten duela...*

- Bai, bai, egíten du anitz; èlurrá ta ótz, otz ánitz egiten dú kemen, bái-  
bai, dénbra ánitz, dénbr'anitez.

EULOGIO ETA ROSARIO RAMIREZ, ETA TELESFORA ELARRE, 1982<sup>47</sup>  
(Eulogio eta Rosario senar-emazteen *Maisterra* etxean bildua)

### Euskara ahantzi, baita umetan dotrinan ikasirikoa ere

- TE: Bai, txikín gintzalarík bai, ordí? báia orái ez. Nik... arrá(r)an (?),  
telébisórian... erráten duelarík... uskarára? trast! géntzen dut; éz gustatzen!  
oái ez gústatzen eni.

- *zer arren, konprenditzeko gaixto dea telebisioko uskarara?*

- TE: Aeeh! oái ez gústatzen, ní'géntzen, beréala!

- ER: oái e, egunóro, egunóro sartzéitzen (?) dixúgu!

<sup>47</sup> Etxe honetan ere lehen aipatu Azpiroz eta *Txillardegi* adiskideekin batera egon ginen.

- TE: Bai... Télenabarrá...! (minutu bakarren bat, albiste batzuk laburki emateko).
  - *ez da kemengo uskarara eta korrengatik ez duzie konprenditzen ongi...*
  - TE: Ez, eztá... gúre uskárara, ez; bah! kéngo uskárara xardóki bálu, ordúan bai bayá, San Sébastien aldész, ondó ongi xardókitzen?
    - *berze uskara bat, ez duzie ongi konprenditzen...*
  - TE: Ah! ník bátre, e? kasórik ere eíten! ník bátrere, ník ensegída géntzen xut.
    - *pues kemendik altzina bear zinuke entseatu...*
  - TE: Xardóki? ez!
    - *xardoki ez? baia ez gen...*
  - TE: Baya diférente báita... úskara kau!
    - *bai, baia, ez anitz...*
  - TE: Bai, bai, bai, bai... diferente dá. Mirá... gázte bat xin tzén, gùriala, èta... xardóki; errán niákokun, fan tzila sekrétarioaren (...), sekrétarioaen arrébak, pues... xárdökitzen zuéla, ongi. Etzola gustátzen, uskára kóri... nastékatzen duéla anítz... San Sébastieneko uskárara. Ta ník erran diakoxú(t), ník... ez, yá átze tzaidála; senárrak etzuéla bátre xardokitzén ta ník ere éz. Eta... átze! ók e... Zubiáldeko nexkátoarékin xìn xínuen, ta èrran diakoxú(t): “mira, que le enseñe la abuelita, que ella que sí, ya sabe el vasco”.
    - *Dionisiak?*
  - TE: la Dionisia.
    - *anitz ongi daki Dionisiak, e?*
  - TE: Bai, xardökitzen dixú anítz uskárarà.
    - *senarra bizi izan zen bitartio arekin anitz xardokitzzen zuela dio...*
  - TE: Bai-bai-bai, bai... béti úskarara; bayá, nik, Féliperekín bátre! bátre etxúgu xardökitzen uskárarà!
    - ER: eta... ètzaiéna... [irakasten?] eta áita zénak etzekiéra...? áita zénak, etzekiena ez úskara?
      - RR: etzákit! etzákit nój... il trén aiták<sup>48</sup>.
      - TE: Éeèz!... Sártzerik báitzen, ta kán ez xárdökitzen batré! úskarará... etxíakixun; etxíakixun éz... konprendí gutziá. Éne lióbak... guziék, e? eztíx(e) xardökitzen bátere úskarara báya konprènditzén gutziá (barrez). Errán diakoxut nik: “ya pudías (sic) ir tú”, ¡hala! tú ya les enseñarás más”, y “sí, yo entender todo, pero hablar...”.
        - *orai guk ikasi bear dugu kemengoa...*
      - TE: Bai, gázte... kúra, xín zelarík errán zixún, kéngo uskarará nái zuela; zomnáida... Donisiak (sic) edo...
        - RR: ¡La Albina?
        - TE: No... “la americana” de Rekalde...
          - *Mayatzaldekoa ote?*
        - TE: Ez...! Rekalde... edo egón zadie?
          - *ez, etxe kortan ez...*
        - ER: (...) abuéla fánik dixu, báia... semíak, txàrdökitzen diá...?

<sup>48</sup> ‘gurasoak’, antza.

- TE: Bátre! aah... noskíro tzérbaixitzen xu; lo que es Nicasia<sup>49</sup>, bai, alabák...
- ER: Nik, zòmait áldiz adìtu baitút, pues...
- TE: Abuélica korrék bai! korrék... óngi, bai, sénarrarekín ta béti xárdo-kitzén bazén uskárará, kebéndi béizen, bàya... Félicheren áita, Sàrzerik...!
- ER: Sàrtze zún? etzúnen ez Tsárdez; Itzálle nutén (?) óla zen (oso esaldi iluna).
- TE: Ítzallérík? eéz! Sartzéri'tú(k); ará... aránekotik (t)xúu. Es que yo ni acierto a hablar, e? se ha olvidaö, buh!...
  - *atzetzen da, xardoki gabe atzetzen da...*
  - TE: Konprendí bai, guziá, bàia xardoki txút...
  - *orduan, gazterik bai, anitz xardoki duzu...*
  - TE: Ah, bai, bai, bai, béti uskarará! béti uskarará!...
  - *bai? karriketan eta guzia?*
  - TE: Bai, bai, bai... béti!
  - ER: Bai, guzián, bai, ta... mûsëala ta... bai.
  - TE: Míra, ní txíkin nintzalarík, pues... nézkato àndié(r), dotrína emàten ziabexún úskarará, béti uskarará, bàia gú andítu gintzalarík yá erdára. Nik, zeñáztzen, ta... pádrrenuestroa eré ikási nixún baia... fán da (barrez).
    - *orainik ere erranen loke zerbait, ez dea?*
  - TE: Yá ez, ya... Sánta Maríá bai: Sánta María Jaungóikuen áma, zük òtoi in zázu gûre bekatariengátki, órai ta béti, ta íltzeko orduán Amén. Ta... zéinatzia ere bái...! Kurútze sanduarén señálearenengátki, gûre etsáietárik... líbra gitzázu géiz guziétarik. Áitaren izénean, Sémeiaénean d'Espíritu Sàntu Jaunaénéan, Amén. Bai! txíkin gintzalarík, ánitz... bayá...
    - *dotrinara ematen zuen apeza kemengo zena?*
  - TE: Itzáltzurik.
  - ER: ¿Don Nemesio?
  - TE: Don Nemesio. Le preguntó a la difunta ‘americana’: “Nórk erran tzún aitáguréa?” - “errán zála bérste orrek!” (barrezka). Ta, ja! saétséan, nin-daixún<sup>50</sup> txíkin, ta, “nórk errán zun aitágurea?” - “Jesukristok... bère áo pròpiaoaz, jauna”, o no sé cómo le contesté... ay! se echó unas risas...! Pero nosotras en... vasco, ni la doctrina ni nada; pa cuando... gú adìtu gintzàanéko, ya... bukáu zen; erdárara, órduan.

### Inauterietako giroa

- *eta karnabaletan... nola erraten da ‘karnabal’ kemen?*
- TE: Pues kárnbabalán, bàia...
- *‘iñauteri’ edo ‘iote’, edo kolako zerbait?*
- TE: (erdi kantaturik, bi nota erabiliz soilik) “Iote, miote...”. (Rosatori:) Espéra... tú tampoco ¿no te acuerdas?... los críos ya saben, sí.
  - *eta zer egiten zen kemen, iotez?*
  - TE: Órai eztá zeátzen.

<sup>49</sup> Nicasia Jiménez, arrestian eta lehenago ere aipatu *Rekalde* etxeko Anacleto Galtxabarraren alaba, alegia.

<sup>50</sup> ‘ninbaixun’ aditzen dela iruditzen zaigu.

- RR: Pues bíl... bíl kura, elkítzen xúnen gáztediará ta géro pues, biltzen (...).
- TE: Áskari bát...!
- ER: Fésta? itzultzen tzén, faten tzén... biltzen, porque (...), ógi... txula (...) xàten zé, guziá... étxe batian, xuntatzen gitzán komisiúk (?) eta... biltze xúnen ánitz, pues dí-, díru, repártitzen díru ori; dirú, arroltzé, txulá, ógi...
- RR: Emáten ziená.
- ER: ... emáten ziená.
- TE: Txistór, arróltze, díru...
- ER: Ta... èrredondi (?) bát pues... yá beterik, eta geró... etxé batéan (...) ta guziék kan.
- TE: Ta díru biltzen zúna, pues... ¡halal! turrón ta... kóitarik e, ixilik árzan (?).
  - *eta nola beztitzen ziren?*
- TE: Íotetán?
- ER: Espálderöa.
  - *arropa zar bat, edo... manu gisan edo?*
- TE: (Elogiori) Nátibitatetán bai, Natíbitatetán, éspalderuá, mútxillará eta... máklara, ártzai bezalá! bai.
  - *kori Natibitatetan, baia iotetan? mozorro edo disfraz edo... kolako zerbaitekin?*
- RR: Bakero etxínuen beztitzen, ez.
- TE: Bai, lén bai; uuuh! len... máskaratrík eta... uuuh! (Rosariori:) ¿Tú, no te acuerdas?
  - *maskara edo zerbait beztiturik eta...*
- TE: Bai, bai, bai... eta káreta, eserírik, kòri mútilek... mútilak. Eta... bézitrík, batzúz (sic)... séñoríta, bërtze batzúk pues... zàrratrako ta gúzietarík! báia óai ezpádago jenderík, beztitzeko eré! guziák fán dra Irúnará!... fán dra gu(t)ziák... amigo, kan, óngi... bizi báitra. Kében trabà-ja...-tz(r)en báizen anitz, ta kán gútti ta díru anitz!...
  - *bai? kemen beño geiago, bai?*
- TE: Kében bëño obéki... bof!

### Neguko eguraldiaz, euskararen ohiko erabilera urriaz eta eritasun mingarri batez

- *aurten izan dea elur?*
- TE: Elúrra? je! por desgracia demasiada. Elúrr(s)a, ya lo creo... únai faten nintzálari (sic) ní... bëietrá, dió! elúrrean ézin élkiz... ah, desgraziáus! bien que desgraziadas éramos, sí.
- ER: Kémen, tejadutártia (sic) elúr anitz zén...!
- TE: Hombre, anitz aldíz, barrátzen, igán gotí ta elúrra... egotzíz, bél-durretz... étxeak unditien zréla! eta korí, óngi armàtrik baitáude! ta aún... oáñik... kontúz!
- *pala bat bear da kortako, berzenaz ezin elki...*
- TE: Bordétra fatéko, nóla ebiltzen níntzan...! kében... Aúria<sup>51</sup>, Aùrian é pues... bida-írur gizón... eta éun guziá éltzeko bordála, e? baiá, bí oron t'er-

<sup>51</sup> *Auria* duela urte batzuk hutsik geraturiko Espartako etxe baten izena da, Brígida Beaumontek aditzera eman digunez.

díedo... urr(s)án írur óron, bordála eltzéko, e? eta élur... èlur puská! eta... zanguétan, exértzen txié palètaxko bátzur, ez únditzekó kamát (= kainbat).

- *egun kuetañ radioak erran zuen kemen elurra izan dela; 30 zentimetro edo...*

- TE: Eeeh! kóri eztá deus eré! kebén ni, txíkin nintzalarík, óri, (lagune-tako bati:) xú ere orítzen xá, bai? karríketarik... ói! bídiak, edekí ta... géro, kálaxe píla batzu(r)... buuh!... gízon guziák elkítzen xintxán, batzúr petígora, bertzé batzúr... gáinberá, pues... pález, elúrra... apartá! ordúan... kótxe, elbítzen báizen ta géro... autó e... así zelárik, Sálazenká! pues... ak<sup>52</sup> tzién apártatu, élurrá...

- *kortaz kemen negua duzie otz, sutondo inguruau egoñ bear...*

- TE. Ez! gúk eztugú sutóndorik, báya kozínillára... firme! sártu ta atària ertsírik? poh! belló derróten<sup>53</sup> báigra. Baxú ya irúr urté eztugúla katárro bat ére arpátu; néguan, éz-ez-ez...

- *(Rosariori:) orrek guti xardokitzén du, e?*

- RR: Bah! eztakít!

- TE: (Rosariori) Ah, bai, bádakixu bái; bái-bai, bádakixu. Bai, xárdoki; egú(n) bíok xuntatzen grelárik, ásten gitxú xardokitzén ta... bereála erdárala! ¡es mucho más a plazer el castellano que el vasco! la cosa es que... el castellano no lo hemos aprendido bien y el vasco...

- ER: Sí pero, claro, si el castellano... si el vasco ya, otro día lo hablaban, sí, bien corriente, el vasco; no hablando castellano...

- TE: Sí, no hablando castellano, con una... que sabe vasco pues ya voy, pero...

- *Dionisiarekin ere, e?*

- TE: Bai, ánitz aldíz, báea badú... denbr'ánitz ez gréla xuntatzen! arék, ásma duéla taník kojéra tála!...

- *arek arnasa eta orrek zangoa...*

- TE: (gurea zuzenduz:) Nik... azpía; atrósí! (sic) buh! kórpuz guzia... eta geró, áutsi nuín... eróri, eta... bah, tseidán (= segidan) fan, Irúñara... opératzra. Zángöa... kála eon bearrián, bertz'aldialá! ìtzulí... kònke Irúñan, arréglatu... tzádaé(n).

- *eta erreuma gentzeko zer du? pomada?*

- TE: Bai, báya déus ez itén! Frántziarík baya déus ez.

- *ene amak ere badu eta anitz estimatzen, Frantziarik eraguirik ere...*<sup>54</sup>

- TE: Míra! míra... zér bultóxko elkí tzeidan, kébe(n), eta kében eré ási, báya káu esertzen baitákit, eztá biltze(n); ken eré eséri bánu!...

- ER: Zertáko etxú errésten (= esertzen?) bérze bat?

- TE: Pues... káu eztút e... eúzten ándi'txa.

- *ene amak erraten du: 'konekin erreumarik ez, guzia gentzen du, fuera!'*

- TE: Míra, gáu batéz, desésperátrik! zér dolooore... emáten (t)zadán éskua(k), eta... batxún úrtéa, énuela... ènpleatú, bátre orítzen, e? óritu nun-

<sup>52</sup> Bitxi da *ak* hori hor, 'ek' hobeki bailegoke, gure ustez.

<sup>53</sup> Balizko \*derrotu aditza –ongi xamar aditzen uste duguna, bestalde– ez dakigu zer izan daiteke-en; ez ote izango ‘bello egoten baigra’, ahuskalo zergatik, gaizki ahoskatua?

<sup>54</sup> Bere amarekiko baieztapen hau eta jarraiko beste batzuk Jose Antonio Azpiroz gure adiskide zenak egin zituen.

tzaxún (sic) gáu kártan; èseri níxun ta dóloriá'tzéditu, báya míra, éskua're nóna eséri (t)zaidá (sic)... orrá, mákur(s)trík eta...

- *baia, tira, dolorerik gabe...*
- TE: Ez, oái dolóre ez; txikírrin kau, astén delárik... min emáten? ói-oi-oi! exúr kebek, e? zér dolóre emáten dadaén! mín ánitz.
- *korko exurrak?*
- TE: Exúrrak; eh! kórpuz guziá arpátzen (...).
- *korrek erraten du biramunian, euri edo elurra denean...*
- TE: Bai-bai-bai-bai... kánbio, oooh! bar bádu kanbiátu, fíte eder-... (zuzenduz:) erráten diabexút, bai; ya puede... ponerse malo en Cafarnaún, ya me dolerá la rodilla.
- *ene amak erraten du: 'nik ez dut bear telebisionea, konek fíte erraten du'; anitz maite du ene amak kori...*
- TE: Bai, pues ník, eséri gáu kartán ta etxút kéntzen; zónbatek erráten dadaé: "adíl zér ordu dá?" - "aizé frésko!" (barrezka)... klaró! éz erlójerík eta, "zér ordu da?" bai.
- *ene amak baditu laurogei urte eta, korrekin, ongi.*
